


EAEko ekonomia %6,7 haziko da 2021ean

BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

BPGA 2021

%6,7




Ekonomiaren epe laburreko bilakaerari buruzko ziurgabetasuna handia da oraindik. Covid-19aren aldaera berriak eta haren ondorio sanitarioa eta ekonomikoa dira aurreikuspen ekonomikoetarako arrisku nagusia. Beste faktore batzuek ere etorkizuneko bilakaera makroekonomikoa baldintzatuko dute, hala nola inflazioaren aurreikuspenak, hornikuntza arazoek sortu dituzten eskaintzaren eta eskariaren arteko desorekak eta Europako funtsen kudeaketa.

Eskura dagoen koiunturako informazioarekin, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza

Zuzendaritzak eguneratu egin du 2021-2022 aldirako EAEko ekonomiaren taula makroekonomikoa. Hala, hazkunde tasa, batez beste, %6,7 izango da 2021ean, eta %6,4, berriz, 2022an. 2021erako BPGaren datu globala bere horretan geratu bada ere, zertxobait aldatu da hazkundearen osaera. Izan ere, barne eskariaren ekarpena gorantz berrikusi da, azken kontsumoko gastuaren ekarpena eta kapital eraketa gordina handitu egin direlako. Aitzitik, orain kanpoko saldoaren ekarpena lehen aurreikusitakoa baino negatiboagoa izango dela espero da.


AZKEN KONTSUMOA

Urte arteko aldakuntza tasa




KAPITAL ERAKETA GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa




INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




Familiaren kontsumoak erritmo onean egingo du gora, konfiantza handitu delako, aurrez-
kia metatu dutelako eta lan igurikimenak
hobeak direlako. Inbertsioaren dinamismo-
aren oinarria izango da munduko testuingu-
rue hobetzea, enpresen konfiantza handi-
tzea eta ekonomia suspertzeko Europako
funtsak bultzatzea. Eskaintzari dagokionez,
ekoizpen adar guztiek ekarpen positiboa
egingo diote EAEko BPGaren hazkunderari,
bai 2021ean, bai 2022an.

BPGaren igoerak eragin handia izango du
enpleguan. Lanaldi osoko lanpostuei dago-
kenez, %5,1eko eta %3,3ko hazkundera au-
rreikusten da 2021ean eta 2022an, hurre-
nez hurren. Azkenik, langabezia tasa %
10,3ra motelduko da 2021ean eta %9,5era
iritsiko da 2022an.


ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA TASA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.